

**2006KO MARTXOAREN 16AN, SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE  
ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar- Aretoa

**EGUNA:** Hamasei

**HILABETEA:** Martxo

**URTEA:** Bi mila eta sei

**HASIERAKO ORDUA:** Hemeretziak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**BILDUAK**

**Lehendakaria:** Pello Garaialde Goikoexea, Beasaingo ordezkaria

**Ordezkarriak:** Jose Mari Aranburu, Altzagako ordezkaria  
Jasone Aranburu, Aramako ordezkaria  
Rosa Goñi Jaca, Ataungo ordezkaria  
Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo ordezkaria  
Prudencio Mujika Albisu, Ezkio-Itsasoko ordezkaria  
Iñigo Izagirre Erauskin, Gabiriko ordezkaria  
J. Ignacio Irastorza Garmendia, Gaintzako ordezkaria  
Daniel Etxeberria Pascual, Itsasondoko ordezkaria  
Kepa Goenaga Alikostes, Lazkaoko ordezkaria  
Juan Ramón Larrañaga Mercero, Legazpiko ordezkaria  
Vicente Garmendia Martinez, Legazpiko ordezkaria  
Jose Mari Lasa Sarasola, Legorretako ordezkaria  
Angel María Mujika Goya, Mutiloako ordezkaria  
Txomin Mendoza Pérez, Olaberriko ordezkaria  
Jose Luis Ormazabal Garmendia, Ordiziko ordezkaria  
Manuel Iturrioz Pérez, Ordiziko ordezkaria  
Jose Lorenzo Murua, Ormaiztegiko ordezkaria  
Jon Agirre Aburuza, Segurako ordezkaria  
Peio González Argomaniz, Urretxuko ordezkaria  
Damian Garmendia Etxabe, Zaldibiako ordezkaria  
Jon Ormazabal Berasategui, Zegamako ordezkaria  
Antonio Garcia Agirre, Zeraingo ordezkaria  
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria

**ETORRI GABEAK:** Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria  
Xabier Ariztimuño Iparragirre Idiazabalgo ordezkaria  
Itziar Agirre Berriotxo, Urretxuko ordezkaria  
Fco. Javier Toquero Miguel, Zumarragako ordezkaria

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran parte hartzen du, ahotsarekin, baina botorik gabe, Iñaki Erauskin Urretabizkaia Sasieta Mankomunitateko zerbitzuburuak.

**1.- AURREKO AKTA.** 2005eko abenduaren 12an egindako bileraren aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- MANKOMUNITATEKO FINANTZAKETA SISTEMA ETA HELBURUA:**  
Sasieta Mankomunitateak egun emandako zerbitzuak finantzatzeko sistema berri bat ezarri eta zerbitzu berriak emateari buruzko Lehendakariaren proposamena.

Lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

#### **“AURREKARIAK**

Sasieta mankomunitatearen egungo kudeaketa eta finantzaketa eredia honako hau:

- 1.- Mankomunitateak bizilagunei, hiri hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendu zerbitzua ematen die.
- 2.- Mankomunitatea osatzen duten udalerriek tasak ezartzen dituzte eta bizilagunei kobratzen dizkie.
- 3.- Udalerriek Mankomunitateari ekarpenak egiten die, bere jardueratik ondorioztatzen den defizita estaltzeko, ekarpen horiek Estatutuetan ezarrita dagoen moduan kalkulatu.

Sasieta Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuen **kudeaketa eta finantzatzaketa** dela eta, 2005eko uztailaren 13an eta 2005eko abenduaren 15an egindako Batzar Errektoreko bi bilkuretan tratatutakoaren arabera, **ondorengo hiru aukera** daude:

- 1.- Estatutuetan aurreikusita dagoen oraingo ereduarekin jarraitzea, ekarpen sisteman inolako aldaketarik egin gabe.
- 2.- Egun dagoen ereduarekin jarraitu, baina Estatutuak aldatu udal ekarpenak, biztanle kopuruaren arabera kalkulatu.
- 3.- Eredua aldatzea: Mankomunitateak dagokion tasak ezarri eta biztanleetatik zuzenean biltzen ditu eta horrela, Udalek ez dute inolako ekarpenik egin behar.

Hau guztia kontutan izanda, Lehendakariak Batzar Errektoreari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik. Estatutuak aldatzea**, Mankomunitateak hiri hondakinen bilketa, garraiatze eta tratamendu zerbitzua emateaz **gain**, bere **helburua** ondorengo ere izan dadin:

- a) Aipatutako zerbitzua emateagatiko **tasak ezarri** eta **herritarrengandik zuzenean biltzea**, bai borondatez bai bide exekutiboz.
- b) Helburu nagusiaz aparte, **bestela zerbitzu batzuk** ere ematea **borondatez** hala eskatzen duten udalerrietan, finantzaketa osoa berauen kontura izango delarik.

**Bigarren.** Zentzu horretan Mankomunitateko zerbitzu tekniko eta juridiko-ekonomikoei **Estatutuen zirriborroa** idazteko **enkargua ematea**, testuan Entitateko helburu berria gauzatzeko legez ezarritako ahalmenak jasoz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Daniel Etxeberria Pascual, Itsasondoko ordezkariak adierazi du, egindako proposamenarekin zerbitzua asko hobetzen dela, baina berak laugarren aukera bat proposatzen duela, hau da:

“Sasieta Mankomunitateak udalerriek ordenantzak egiteko irizpide batzuk ematea eta Udalerriek tarifak onartu eta bildu.”

Lehendakari jaunak hitza eman ondoren, Idazkariak azaldu du egungo Estatutuak, 3.a) artikuluan adierazten dutela Batzar Errektoreak bere inizatibaz edo Lehendakariak proposatuta, estatutuak aldatzeko erabakia hartu dezakeela eta udalek askatasun osoa dutela atal bakoitzean nahi dutena aurreikusteko.

Estatutueta 16.4 artikuluan aipatzen den prozedurari jarraituz, estatuen aldaketa burutzeko ondorengo pausuak eman behar dira:

**1.-** Batzar Errektoreak hartutako Mankomunitateko helburua aldatzeko erabakia eta Estatutu berriak idazteko enkargua. Erabaki horrek gehiengo absolutua behar du.

**2.-** Batzar Errektoreak, gehiengo absolutuarekin Estatutuen aldaketa testuari hasierako onspena ematea.

**3.-** Estatutu Proiektuaren testu osoa, Udalerri guztietara bidaliko da, Osoko Bilkuran gehiengo absolutuarekin onartzeko. Aldaketari hasierako onspena emango zaio eta jendaurrean jarriko da. Informazio publikorako epean inolako alegaziorik ez badago, behin betiko onartua geldituko da. Udalerriek hartutako erabakiaren berri Mankomunitateari emango diote.

**4.-** Bide batez, Estatutuen aldaketa testua eta erabakia Gipuzkoako Foru Aldundira igorriko da beharrezkoa den, baina loteslea ez den txostena eman dezan.

5.- Foru Aldundiko txostena eta udalerrietako erabakiak jaso ondoren, Batzar Errektoreak gehiengo absolutuarekin, behin betiko onespena emango dio Estatutuen aldaketa testuari.

6.- Estatutuen aldaketa, Entitate Lokaletako Erregistroan inskribatuko da (otsailaren 10eko 382/1986, Erret Dekretua eta 1986ko ekainaren 3ko Agindua).

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, lehenik Itsasondo ordezkariak egindako proposamena bozkatu da, hau da:

"Sasieta Mankomunitateak udalerriek ordenantzak egiteko irizpide batzuk ematea eta Udalerriek tarifak onartu eta bildu."

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 1 (Itsasondoko ordezkaria)

Aurkako botoak: 23 (bilerara etorri diren beste ordezkari guztiak)

Horren ondorioz, ez da onartu, Itsasondoko ordezkariak egindako proposamena.

Jarraian, Lehendakariak egindako proposamena bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 23 (bilerara etorri diren ordezkariak, Itsasondokoa ezik)

Aurkako botoak: 1 (Itsasondoko ordezkaria)

Horren ondorioz, **gehiengo absolutuarekin** ondorengo erabakia hartu da:

"**Lehenik, Estatutuak aldatzea**, Mankomunitateak hiri hondakinen bilketa, garraiatze eta tratamendu zerbitzua emateaz **gain**, bere **helburua** ondorengo ere izan dadin:

- a) Aipatutako zerbitzua emateagatiko **tasak ezarri** eta **herritarrengandik zuzenean biltzea**, bai borondatez bai bide exekutiboz.
- b) Helburu nagusiaz aparteko **bestela zerbitzu batzuk** ere ematea **borondatez** hala eskatzen duten udalerrietan, finantzaketa osoa berauen kontura izango delarik.

**Bigarren**, Zentzu horretan Mankomunitateko zerbitzu tekniko eta juridiko-ekonomikoei **Estatutuen zirriborroa** idazteko **enkargua ematea**, testuan Entitateko helburu berria gauzatzeko lege ezarritako ahalmenak jasoz."

Eta tratatzeko gairik ezean bilera gaueko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.